



VII. plangintzaldirako gidalerroak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Argitaraldia

2023ko ekaina

©

Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet

www.euskadi.eus

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen
Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones
del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 • 01010
Vitoria-Gasteiz

Diseinua

JM Arriaga


Maketazioa

Mikel Azpiri

Aurkibidea

1. Hizkuntza-kudeaketa zergatik?	3
2. Agintarien ekimena, giltzarri	7
3. Arrakastarako bidean	11
4. Hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko egitura	15
5. Hizkuntza-irizpideak	19
6. Plan estrategikoa eta kudeaketa-planak	21
7. KEMEN markoa	27
8. Adierazle-sistema	35
9. AriGara plataforma	39
10. <i>Bikain</i> euskararen kalitate-ziurtagiria	41
11. <i>Euskaraz barra-barra</i> ziurtagiri bateratu berria	45
Eranskina	
A. Itzultzaile neuronala eta Itzulpen-politika	49
B. <i>Elebide</i> -Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua	53
C. VI. plangintzaldiaren balorazio orokorra	55
D. EAEko sektore publikoan euskara normalizatzeko dekretu berria	59

*25 urte baino gehiago joan dira
86/97 Dekretua onartu zenetik.
Garai hartan hazia landatu genuen.*



1

Hizkuntza- kudeaketa zergatik?

EAEn juridikoki maila berean dauden bi hizkuntza ofizial ditugun arren, nahi baino gehiagotan, ez daude maila berean. Hori dela eta, herri-erakundeok dagokigun autonomia baliatuz herritarren **hizkuntza-eskubideak** bermatu beharra daukagu; izan ere, legediaren arabera herritarrek bi hizkuntza ofizialetako **edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldiz, eskumen hori bermatzeko obligazioa.**

EAEen hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko beharrizan hori **planen bitartez** gauzatzen dugu; izan ere, plan horien bidez, EAEko sektore publikoak sustapen-ekintzak abiatzen ditu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta gure erakundeetako esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko sektore publikoa osatzen duten erakunde eta eragile **guztiei** aitortu behar die orain arte euskararen sustapenean egindako lan eskerga: langileak gero eta euskaldunagoak dira, euskararen presentzia eta erabilera gero eta ohikoagoa da gure erakundeetan, eta sektore publiko **elebidun, hurbil, berritzaile, efizientea** eraikitzeko ahaleginetan gabiltza etengabe.



Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen datuak (2021)

Herritarren
% 75ek
uste du
administrazioan
lan egiteko
euskaraz jakin
behar dela

Herritarren
% 95ek
uste du
administrazioak
herritarrek
aukeratzen
duten hizkuntza
ofizialean eman
behar diela
arreta

2

Agintarien ekimena, giltzarri

Erakundeko gainerako arloetan bezalaxe, **agintari politiko eta teknikoak** izango dira, ezinbestean, Administrazioan hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta **lideratuko** dutenak.

Eginbide horri ganoraz heltzeko, HPSk —erkidegoko hizkuntza-politika koordinatzeko erakunde amankomuna den aldetik— hurrengo orrialdean aurkituko dituzun **aholku** hauek ematen dizkie herri-erakundeetako buruei hizkuntza-kudeaketa eraginkorra egin dezaten.



Hizkuntza ofizialen kudeaketa eta euskararen erabileraren sustapena **zuzendaritza-organoaren erabakia** izango da.

Erakundeko **burua** izango da (edo berak izendatutako pertsona bat, **hizkuntza-liderraren figurak** emaitza onak ematen dituelako) erakundean euskararen erabilera sustatzeko proiektua kudeatzeko arduraduna, euskara-teknikariaren aholkularitzarekin.



Hizkuntza-kudeaketa erakundearen **kudeaketa orokorrean** txertatu beharra dago eta hori gauzatzeko **sistematika bat** ezarri.

Erakundean duten itzala gogoan, agintaritzan dauden pertsonak **eredugarriak** izango dira euskararen erabileran eta kudeaketan.


Zuzendaritza-organoetan dauden pertsonak, elebakarrak izan arren, ziurtatu egingo dute herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzen direla eta **ez dira oztopo** izango erakundean euskaraz lan egin dadin.

Tarteko arduradunek, kudeaketaren beste katebegi bat diren aldetik, **datuak bildu** eta sustapen-lana egingo dute.



Langileen **partaidetza** bultzatuko dute, sindikatuak proiektuaren partaide eta eragile bihurtuta, eta langileek euskararen erabilera sustatzeko konpromiso individual edo kolektiboak hartuta.

Erakundeak **langileekiko konpromiso** batzuk hartuko ditu (normalizaziorako baliabideak jarri, trebakuntzarako erraztasunak eman...), eta bestetik, **langileek** (politikari nahiz teknikari) **konpromiso** batzuk hartuko dituzte euskararen erabilerari begira.



Erakundeek sustatu egingo dute kargudunek ahozko eta idatzizko **gaitasuna** edukitzea hizkuntza bietan, eta horretarako baliabideak ezarriko dituzte.

Erakundeek partehartzaile guztien **adostasuna**, inplikazioa eta elkarlana zaindu eta bilatuko dituzte.


Hiru elementurik funtsezkoenak —egitura, sistematika eta adostasuna— kudeaketari dagozkio; izan ere, kudeaketak erabateko eragina du erabileran. Beraz, zelako kudeaketa egiten dugun, halako erabilera izango dugu.



3


Arrakastarako bidean

Aurrekoez gain, euskararen erabileraren sustapenean prozesu arrakastatsuak egin dituzten erakundeen esperientziari erreparatuta, honako **ondorio** hauek azalerau zaizkigu:






EAEko sektore publikoak **eskaintza** linguistiko **aktiboa** egin behar du, hizkuntza hautuaren zama eta estres linguistikoak herritarraren bizkarretik kentzeko. Gainera, erakundeek **modu proaktiboan** parte hartu behar dute euskararen erabileraren aldeko ekimenetan.



Euskararen sustatze prozesua, eraginkorra izango bada, aldian-aldian **ebaluatu** eta, beharrezkoa izanez gero, **egokitu** egin beharra dago. Hortaz, erakundeek bitartekoak jarriko dituzte ebaluazio horiek ondo egiteko eta ziurtatzeko, ebaluazio horietan oinarrituta, proiektua doitzen eta hobetzen dela.



Hizkuntza ofizial biak erabiltzerakoan **kalitatezko kudeaketa** bermatu beharra dago; beraz, **datuak behar dira**.




Ebaluazioaren kalitateak gora egingo du baldin eta **kanpo-ikuspegia** badago; ikuspegi hori lortzearren Bikain ebaluazio prozesuan parte hartzera animatzen zaituztegu (ikus 10. atala).



Sektorea osatzen duten erakundeek euskara **lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa** guztiz normalizatzea bideratuko dituzte euren hizkuntza-politika, ekintzak eta jarduna, erakundeen eta administrazioaren funtzionamendua euskaldunduz.




Toki-erakundeek gauzatzen dituzten zenbait proiektutan Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (**ELE**) tresna erabiliko dute, proiektuok tokian tokiko egoera soziolinguistikoan izan lezaketen eragina aurreikusteko.



Administrazioak **kalitatezko testuak** egin behar ditu. Testu argiak izan behar dira, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz, bereziki komunikazioen hartzaileak herritarrak badira.

Imajinatu erakundean kontabilitatea kudeatzeko daturik ez daukazula: lehenago horretarako bitartekoak jarri izan ez bazenitu, zelan jakingo ote zenuke erakundeko egoera ekonomikoa zein den? Hizkuntza ofizialen kudeaketarekin, jakina, gauza bera jazotzen da.




4

Hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko egitura

Erakundean hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko **egitura** bat sortzea ezinbestekoa izango da ganorazko kudeaketa bat egingo badugu.


Jakina, erakundearen tamaina eta ezaugarriak zein diren, egituraren osaera aldatu egingo da.




Egituraren zenbait ezaugarri

- 1** Egiturak tarteko arduradunen bitartez hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko **sistematika** bat jartzen du abian, hizkuntza-kudeaketa erakundean **aplikatzeko** eta haren **datuak biltzeko**.
- 2** Egitura **zeharkakoa** da, politikoei eta teknikariak osatuta dago eta **erabaki estrategikoak hartzeko ahalmena du**; are, erakundearen egituraren barruan izaera juridikoa hartzen badu, askoz hobeto.
- 3** Partaideek erakundearen hizkuntza-egoera zein den badakite, helburuak **adostu** eta haiek erdiesteko ekintzak antolatu eta abiatzen dituzte.
- 4** Egiturak erakundearen **hizkuntza-irizpideei** eta **plan estrategikoari jarraipena egiten die** (ikus 5. eta 6. atalak) eta, aldian behin, egindako lana **ebalatu** eta egokitzapenak egiten ditu.

Jakina da hamaika ezaugarri baldintzatzen dutela normalizazio prozesua: erakundea kokatuta dagoen eremu soziolinguistikoa, kasuan kasuko langileen hizkuntza-gaitasuna eta euskara erabiltzeko ohitura, agintari politikoen proaktibotasuna, euskara teknikariaren inplikazioa eta abar. Nolanahi ere, erakundean hizkuntza-kudeaketaren ardura duen **zeharkako egitura eraginkor bat** edukitzea izango da, halaberrez, emaitzek gora egitea ekarriko duena.





Egun on, zertan lagunduko dizut?



5

Hizkuntza-irizpideak


Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideek oinarrizko jardun-ildoak ematen dituzte, bai erakundeek bai bertako langileek, hizkuntza-arloan nola jokatu behar duten jakin dezaten. Irizpide hauek EAEko sektore publikoko erakunde bakoitzak finkatu behar ditu, betiere haren hizkuntza-plangintzaren esparruan.



Irizpideok KEMEN marko berriarekin lerrokatzea komeni da (ikus 7. atala); beraz, VII. plangintzaldiko **lehen urtean** beranduenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko erakunde guztiek **beren-beregiko Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak** onartuko beharko lituzkete



Erakundeak hizkuntza-irizpideen **betetze-maila** neurtuko du eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak abiatuko ditu.



6

Plan estrategikoa eta kudeaketa-planak

Planak ezinbesteko tresnak dira erakundean hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko.

Planen artean, **plan estrategikoa** eta **kudeaketa-planak** bereiztu beharra dago.



Plan estrategikoa

Plan estrategikoa plangintzaldiko **bost urterako** plan orokorra da; bertan erakundeak **helburuak** ezarriko ditu, baita zelako **emaitzak** espero dituen bitarte horretan ere.

Erakunde guztiek euren plan estrategikoa diseinatu eta onartuko dute plangintzaldiaren **lehen urtean**.




Planetako helburuak —nahiz aurreikusitako emaitzak— **errealistak eta egingarriak** izango dira; baina era berean, erakundearentzako **erronka ere bai**.

Kudeaketa-planak

Kudeaketa-planak **ekintza planak dira**, hots, plan estrategikoan aurreikusitako helburuak lortzekotan programatzen diren jarduerak.

Kudeaketa-planetan ekintza horiek **nola gauzatuko** diren eta haien bitartez zer **helburu** lortu nahi diren ere markatuko da.

Plangintzaldia bitartean **gutxienez bi aldiz**, erakunde guztiek **kudeaketa-planak** onartuko dituzte plan estrategikoa garatzeko.



Kudeaketa-planetako ekintza guztietan, gutxienez, honako informazio hauek agertuko dira:

Nork / Zer / Noizko

Datu bakoitza eskuratzeko **arduraduna** izendatu eta datua **noizko** izan behar duen **agertuko da**.




HPSk **ereduzko planak** eskainiko ditu —estrategikoak eta kudeaketakoak— eta EAEko sektore publiko osoaren esku utziko ditu erakundeek, nahi izanez gero, erabil ditzaten.

Plangintzaldiko **abiapuntuko egoera** zein den antzemateko, jakina, diagnostiko zehatza egin beharra dago. Horretarako, VI plangintzaldi-amaierako ebaluazioa erabiliko da; izan ere, emaitza horiei esker jakingo dugu zertan diren gaur egun adierazleak, eta bost urterako aurreikuspenak egin ahal izango ditugu.


Diagnostikorik ez duten erakundeek HPSk sektore publikoaren esku jarriko duen diagnostikoa egiteko **tresna telematikoa** erabiliko dute erakundearen argazkia zein den jakiteko.

Edozein modutan ere, bosturteko honetan kudeaketari lotutako **adierazle berriak** izango ditugunez, diagnostiko hori **zenbait informazio berriekin osatu** beharko dugu.



Aplikazio telematiko honen bitartez, erakundeek Eusko Jaurlaritzari onartutako planak eta bildutako datuak helaraziko dizkiote. Hala, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikako eskumena duen organoak era fidagarriagoan jasoko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoetako euskararen kudeaketari eta erabilerari buruzko datuak, eta horrenbestez, sektore publikoaren **argazki osatuago bat** izango du legeak ematen dion hizkuntza-politika koordinatzeko beharra modu eraginkorragoan gauzatu ahal izateko.

- Aplikazioak, besteak beste, honako hauek egiteko bidea emango du:
- Autoebaluazioa eta jarraipena egiteko
 - Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak diseinatzeko
 - Plan estrategikoa egiteko
 - Kudeaketa-planak egiteko
 - Norbere burua besteekin (era anonimoan) konparatzeko




7

KEMEN

KEMEN, *Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako*, euskararen normalizazio-prozesua kudeatzeko gako eta baliabideak ematen dituen **sistema integrala** da, edozein erakunde motatan, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua modu antolatu eta eraginkorrean kudeatzeko.

Marko estandar berria **2 ardatzetan** egituratuta dago eta **13 arlo** aurreikusten ditu.

HPS | Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Historia apur bat

2017an HPSk EME-*Erreferentzia Marko Estandarra* sortu eta onartu zuen, edozein erakundetan —publiko nahiz pribatu— kudeatzen diren hizkuntzari lotutako elementuak bilduz. Marko hartan oinarritutako **erabilera-planak inflexio puntua gertatu ziren** EAEko euskararen erabilera planifikatzerako orduan, eta jakina, aldaketa hark planak ebaluatzeko sistema erabilgarri bat garatzea eskatu zuen.

Orain arte, eginbide hori Siadecoren tarteko eta amaierako ebaluazioetako inkestak bitartez egin izan dugu; hala, Eusko Jaurlaritzak bere erakundeen datu zehatzak eskuratzen bazituen ere, gainerako administrazioari dagokionez, HPSk (eta erakunde gehienek) datu globalak baino ez zeuzkan (aldundiak; Arabako udalak; Bizkaiko udalak, sektore publikoa...), baina ez zegoen banakako datu zehatzik jakiterik.

Era berean, erakunde gehienek Jaurlaritzaren ebaluazioak heldu arte ez zeukaten plangintzaldian garatutako lanaren emaitzen berri eta, ondorioz, ordura arte **ezin zuten emaitza horien arabera neurriak hartu**.


Hori dela eta, HPSk hausnarketa-prozesu bat abiatu zuen hainbat eragilerekin —tartean hizkuntza normalkuntzako hainbat teknikari eta kudeatzaile, baita kalitatean adituak ere— EAEn egiten dugun hizkuntza-kudeaketaren **emaitzak neurtzeko adierazle-sistema** eraginkor bat diseinatu nahian. Ibilbide horretan, berehala hauteman zen kudeaketari begirako adierazleei ikusgarritasun handiago eman behar zitzaiela.

Halaber, horri lotuta ere, adierazle-sistema horrekin bete-betean uztartuko zen **marko berri bat** definitzeko premia antzeman zen: KEMEN.




KEMEN markoaren ezaugarriak

- Euskararen **erabilera** sustatzera bideratutako kudeaketa.
- Planen eta hizkuntza-irizpideen **jarraipen sistematikoa**.
- Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta **lidergoa**.
- **Zeharkakotasuna** erronka gisa.



Kudeaketa erdigunean.

Datu fidagarriagoak eta neurgarriagoak eskuratzeaz gain, KEMEN markoaren helburu nagusia honako hau da: hizkuntza-kudeaketa erakundeko kudeaketa orokorrean txertatzea.



HIZKUNTZA
IRIZPIDEAK



PLAN
ESTRATEGIKOA



KUDEAKETA
PLANA



DATUAK BILDU



EBALUATU



APLIKAZIO
TELEMATIKOA
ELIKATU



NEURRI
ZUZENTZAILEAK




DATUAK BILDU



EBALUATU





APLIKAZIO
TELEMATIKOA
ELIKATU



NEURRI
ZUZENTZAILEAK

GIDALERROAK





8

Adierazle-sistema

KEMEN markoak erabilera-plan eraginkorrak **diseinatzea, kudeatzea eta jarraipena egitea** aurreikusi behar zituenez, HPSk datuak eskuratzeko eta ebaluatzeko adierazle-sistema berri bat ere garatu du hurrengo plangintzaldietarako. Bertan hainbat adierazle txertatu dira, besteak beste, erakundean euskarak duen zeharkakotasunaz, euskara kudeatzeko sistematikaz, arduradunen lidergoaz eta euskara sustatzeko estrategiaz.





Malgutasuna

Sistema honek erakundeei erabilera-planak euren errealitate eta beharretara **doitzea** ahalbidetuko die; hau da, euren egoerara ondoen egokitzen diren adierazleak **aukeratu** ahal izango dituzte euren errealitatea, ezaugarriak, tamaina, gune soziolinguistikoa... ezberdinak direlako.

Adierazle-sistema honako hauek osatuta dago:


- 2 Ardatz, 13 Arlo, 48 Adierazle



Adierazleek honako ezaugarri hauek dituzte ezinbestean: **neurgarriak, adierazgarriak, fidagarriak eta zentzuzkoak** dira.

Aginte-panela:

Halaber, adierazle-sistemak erakunde guztientzat euskararen erabileraren normalizaziorako **amankomunak diren 14 adierazle** aurreikusten ditu; hau da, EAEko sektore publikoko erakunde guztiek neurtu behar duten gutxieneko adierazle sorta. Honi aginte-panela esaten diogu.




9

AriGara
plataforma



AriGara, **euskara-teknikarientzako plataforma**, 2021ean sortutako Interneteko ataria da eta Euskal Herri osoan euskararen erabilera normalizatzeko ardura dutenentzako **bilgunea** izateko xedearekin abiatu zen, betiere etortzekoa zen VII. plangintzaldia gogoan.

Plataformaren helburu nagusia hauxe da: sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko ardura duten pertsonei **lana errazteko baliabideak** eskaintzea.



Plataforman hainbat formatutako ekitaldiak antolatzen dira: prestakuntza-saioak, mintegiak, praktika onak edota aldian behin sortzen diren berrikuntzak.

Orain arteko ibilbide laburrean hainbat saio eta ikastaro eskaini dira —**aurrez aurrekoak nahiz online**—, besteak beste honako gai hauen inguruan: kudeaketa-planak zelan egin, VI. plangintzaldiko tarteko ebaluazioaren emaitzak, Marka berri bateratua, Bikain ziurtagiri berria, normalizazio dekretu berria, hizkuntza-kudeaketa, praktika onak, online baliabideak...

AriGara plataforma:

Materialak partekatu eta eskuragarri jartzeko lekua da.

Gaiek eguneroko lanarekin lotura dute.

Eskaintzen diren saioak arinak dira.

Praktika onak zabaltzea eta elkarlanerako foroak osatzea ezinbestekotzat jotzen da.



Zeure erakundean euskararen erabilera sustatzen lan egiten baduzu, **eman izena** AriGara plataforman azken berritasunak ezagutzeko.

10

Bikain Euskararen Kalitate-ziurtagiria

BIKAIN Eusko Jaurlaritzak ematen duen **ziurtagiri ofiziala, publikoa, doakoa** da eta euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen ditu bai sektore publikoan, bai esparru sozioekonomiko pribatuan ere.

Ziurtagiriak hiru maila ditu —oinarrizkoa, erdikoa eta goikoa—, eta eskuratu ahal izateko, erakundeak kanpo-ebaluazioa jaso eta gainditu behar du.



Bikain Berria

Bikain Euskararen Kalitate-ziurtagiria 2008an jaio zen. Ordutik hona, asko izan dira ziurtagiriaren mailetako bat egiaztatu duten erakunde publikoak nahiz pribatuak.

Plangintzaldi berria dela eta, HPSk orain arteko eskarmentutik ikasi eta **zenbait hobekuntza** egin ditu sisteman.

Aldaketa horiek gauzatze aldera, indarrean den 162/2017 Dekretua ordezkatzeko duen **dekretu berria** argitaratuko da; bertan, sektore publikoa eta sektore sozioekonomiko pribatua banatu egingo dira eta beren-beregiko ebaluazio- eta egiaztatze-prozesuak izango dituzte.

Bestalde, euskararen kudeaketaren aitortza-sistemari lotutako marka eguneratu eta berriak diseinatu dira eta denak bilduko dituen markaren eskuliburuan jarriko dira erakunde guztien eskura.



Bikain berria sektore publikoan

Honako hauek izango dira sektore publikorako Bikain berriaren **nobedaderik** aipagarrienak:

- 1

Osorik aurkezteaz gain, erakundeek **atalka ere** aurkezteko aukera izango dute, euskararen kudeaketa eta erabilerari dagokienez egoera onenean dituzten atalak ebaluatzeko aukera emanaz.
- 2

Bikain ebaluazioak **etengabe** egin ahal izango dira; hau da, **urte osoa bitartean**, ebaluazio-aldi zehatzik gabe.
- 3

Ebaluazioak adierazle-sistema berriarekin eta KEMEN marko berriarekin **lerrokatuta** egongo dira.
- 4

Autodiagnostikoa irizpide beraren arabera egiteko metodologia eskainiko zaie erakundeei; ondorioz, neurketek emaitza zientifikoagoak eta erakundeen artean bateragarriak lortzea ahalbidetuko dute.
- 5

Bikain aitortza-sistemara aurkeztu aurretik, erakundeek euren egoeraren **simulazioak** egiteko aukera izango dute HPSk garatutako aplikazio informatiko berri baten bitartez.
- 6

Bikain ziurtagiriak eskuratzeko ebaluazio-prozesuak **profesional adituek** egingo dituzte.
- 7

Bikain ziurtagiria eskuratu duten erakunde publikoen arteko elkarlanerako **foroa** aurreikusi da praktika onak partekatzeko.

11

Euskaraz barra-barra ziurtagiri bateratua

Euskaraz barra-barra euskararen ziurtagiri bateratu berria da, herritarrek **establezimenduetan euskaraz** lasai hitz egin dezaketela adierazteko.



Euskaraz Barra-Barra ziurtagiriaren ezaugarriak

1 Euskal Herri osorako planteatuta dago. Proiektu iraunkorra da, eta izaera instituzionala du.

2 Lurraldeen berezitasunak kontuan hartuta, malgutasuna egongo da egokitzen egiteko.



3 Esparru pribaturako nahiz publikorako ziurtagiria izango da, baina pribatuak izango du lehentasuna 2023an.



2023tik aurrera, ziurtagiri berri bateratua zabaldu ahala, arian-arian **amaiera** eman beharko litzaieke gainerako ikur eta identifikagarriei.



Erabiltzeko baldintzak

Ulermena bermatzea; alegia, establezimendua zabalik dagoen bitartean, euskaraz ulertzen duen langileren bat egongo da beti. Beste era batera esanda, **inoiz ez da behartuko bezeroa hizkuntza aldatzera**. Egoera soziolinguistikoa zein den, zorroztu ahal izango dira gutxieneko baldintza hauek.

Establezimenduak Euskaraz barra-barra **ezaugarri** berriaren bitartez identifikatuko dira; orobat, erakundeari egoki irudituz gero, saltzaileak nahiz arreta ematen dutenak ere markarekin identifikatu ahal izango dira.

Zabalkundea eta jarraipena

Bertako zabalkundeaz **tokian tokiko euskara-zerbitzuak** arduratuko dira, baliabide propioekin edo enpresa nahiz elkarteren bat kontratatuz. Merkataritza- eta enpresa-zentro handiez (denda-kate handiak, banketxeak...) lurraldean lurraldeko euskararen normalizazioaren ardura duten erakundeak arduratuko dira (EAEren kasuan, HPS bera).

Jarraipenaz ere tokian tokiko euskara zerbitzuak arduratuko dira, baliabide propioak erabiliz nahiz kontratuen bidez.

Eranskina



A

Itzultzaile neuronalak eta itzulpen-politika

2020an, Eusko Jaurlaritzak **itzultzaile neuronal juridiko-administratiboa** (administrazioko testuetarako) eta **itzultzaile neuronalak** (erabilera orokorretarako) jarri zituen abian, bai telefono mugikorretan instalatzeko, bai nabigatzaileetan, baita *euskadi.eus* atarian ere.

Garai hartan ere Jaurlaritzak itzulpen-politika **eredu berri bati ekin** zion eta plangintzaldi honetan are gehiago sakonduko dugu eredu horretan sektore publiko osoan.


Itzultzaile neuronala

Oraintsu arte, itzulpen zerbitzuetara bidaltzen ziren itzulgai guztiak. **Filosofia berri**arekin, oster, lanpostuaren hizkuntza-gaitasuna egiaztatuta duten langileak izango dira euren eguneroko testu laburrak hizkuntza ofizial bietan ipintzeko ardura izango dutenak (e-postak, bilera-deiak, komunikazio laburrak, jakinarazpenak, txosten laburrak...).

Hori lortze aldera, jakina, Itzultzaile Neuronala tresna ezinbestekoa gertatuko da.

Edozein modutan ere, zehaztapen batzuk egin behar dira haren erabileraren gainean:

- Itzultzaile Neuronala erabiltzeak ez dakar botoi bat sakatzea bakarrik. Betiere **zuzenketak egin** beharko dira.
- Testuaren arduraduna eta egin litezkeen akatsen erantzulea **egilea** bera izango da.



Jakina, zenbait kasutan —ofizialtasunagatik, konplexutasunagatik, luzeragatik, estrategikotasunagatik— testuak (edo guk egindako egokitzapenak) **itzulpen-zerbitzura** igortzen jarraituko dugu.

Idazkidetza bihar-etziko eredua

Gaur-gaurkoz , EAEn lege-testuak idazten direnean, ia prozesu osoa gazteleraz garatu ohi da eta azken momentuan legea onetsi aurretik, euskaratu egiten dira legeak halaxe eskatzen duelako. Horrek, besteak beste, hainbat esparrutan euskarazko testuak erdal bertsioen morroi izatea dakar, baita hizkuntzaren berezko sena eta estiloa galaraztea ere. Nolanahi ere, gai honi lotuta, ate joka dugun etorkizuna aipatu beharra dago:

2022ko ekainean Eusko Legebiltzarrak **6/2022 legea, Xedapen Orokorrak egiteko prozedurarena**, onartu zuen eta bertan urrats garrantzitsuak egin dira esparru honetan. Ekar dezagun hona 4. artikuluko pasarte hau:

*“Hizkuntza-berdintasunaren printzipioa: euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak izanik, araugintza-prozeduran haien arteko berdintasuna bermatuko da, bereziki herritarrekiko eta haien elkarte-ehunarekiko harremanetan euskararen erabilera sustatuz. Euskararen erabilera sustatzeari begira, araua euskaraz kalitatez lantzeko neurriak hartuko dituzte erakunde publikoek, eta, gaztelaniazko eta euskarazko bertsioen arteko baliokidetza ziurtatzeko, bi testuen arteko **elkarrizketa iraunkorra** egituratuko da, horri begira dagozkion neurriak hartuta.”*

Beraz, apurka-apurka, Xedapen Orokorrak **aldi berean bi hizkuntza ofizialetan idaztera** jo beharko luke Administrazioak zabalkunde ofiziala egin aurretik. Hala, hizkuntza-berdintasuna araugintza-prozesuaren kalitatea bermatzeko printzipioa izango da eta haren bidez testuaren lanketan bi bertsioen arteko elkarriketa egituratua bermatuko da, haien arteko kontrastea eta baliokidetzaz ziurtatuz.

Idazkidetza gauzatzeko era ezberdinak daude eta EAEko erakundeak aztertzen ari dira nazioartean dauden zenbait korredakzio-eredu berehala pilotatzen hasteko eta hemendik urte batzuetara gurean ezartzeko.



B

Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua

Ezagun da eskubideak juridikoki aitortzeak ez dakarrela berez eskubide horiek praktikan behar bezala betetzea; horregatik, **mekanismoak** ezarri behar dira hizkuntza-urraketen aurrean jardun ahal izateko. Mekanismo horietako bat da *Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua*.

Edozein herritarrek jo dezake bertara haren eskaera, iradokizuna edo kexa egiteko. Elebidek honako zerbitzu hauek ematen ditu:

- Hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean jarritako **eskaeren edo kexen kudeaketa**.
- Hizkuntza-eskubideei buruzko **informazioa eta aholkularitza**.
- **Lankidetza** eskaintzea eragindako entitate guztiei, hizkuntza-eskubideak berma daitezen lortzeko.
- **Koordinazioa** egitea, elkarte eta erakundeekin, herritarren hizkuntza-eskubideak babesteko eta indarrean dagoen araudia bete dadin.
- Hizkuntza-eskubideen babesari lotutako edozein **proposamen** edota iradokizunen **harrera**.

Harremanetan jartzeko:

TELEFONOZ:
012 Euskal Autonomia Erkidegotik.
945 018000 Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpotik.
00 34 945 0180000 atzerritik.
Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 19:30etara.

POSTA ELEKTRONIKOZ:
elebide@euskadi.eus

POSTA ARRUNTEZ:
ELEBIDE
Eusko Jaurlaritza-HPS
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz




VI. plangintzaldiaren balorazio orokorra

Azken bosturtekoan baikortasunerako zenbait datu izan ditugu 86/97 Dekretupean dagoen administrazioan: hizkuntza-kudeaketa egiteko **planen kopurua hedatu egin da, erakundeen % 95ek hizkuntza-irizpideak ezarriak ditu, langileen % 81ek ezagutzen ditu irizpideok, eta % 79k bete egiten ditu** eguneroko jardunean; izan ere, duela urte asko hartu genuen kalitatearen bidea hizkuntza ofizialen kudeaketan, eta horrek ez du itzulbiderik.

Era berean, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza inoiz baino eraginkorragoa izan da: Hiruko Ituna eta marka berri bateratua, HAKOBA, AriGara plataforma, KEMEN marko estandar berria...


Gaitasuna

Gaitasunari dagokionez, gaur egun inoizko hizkuntza-gaitasun mailarik altuena dugu Administrazioan: hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta duten langile kopurua ia % 90 da, eta gero eta agintari politiko gehiago dago prestatuta euskaraz lan egiteko: % 80k dio euskaraz ulertzen duela eta % 67,5ek, berriz, hitz egiteko gai dela. Beraz, plangintzaldi honetako dema honako hauxe da: **gaitasun hori erabilera bihurtu.**



Erabilera


Azken bost urteetan euskaren erabilerak gora egin du nabarmen hainbat esparrutan, hala nola barne-harremanetarako idazkietan (% 78,5; 10,1 puntu gora); herritarrei bidalitako dokumentazioan (% 73,2; 1,6ko igoera); eskaintza aktiboan (% 63,6; 11,4ko igoera); herritarrek erantzuteko erabilitako hizkuntza (% 42,3; 6,9 gora); lankideen arteko hizkuntza (% 55,1; 15,7ko igoera); eta abar. Datu guztiak **kontsulta** daitezke HPSren webgunean eta AriGara plataforman.



Hobetzeko

Jakina, **ahuleziak** ere izan ditugu: oraindik ez gara gai **herritarren hizkuntza-eskubideak** bete-betean bermatzeko, ez ahoz (% 19,5an), ezta idatziz ere (% 13,3an); **aplikazio informatikoen** euskarazko aldaeren erabilera oso eskasa da (% 18,1 euskaraz gehiago, eta % 10,3 euskaraz gaztelaniaz bezainbeste) eta areagotzeko ahaleginak egin beharko ditugu VII. plangintzaldian.

Orobat, langileentzako **prestakuntzan** ere euskara makal dago (% 17,4 euskaraz bakarrik edo euskaraz gehiago, eta % 14, 2 euskaraz gaztelaniaz bezainbeste) eta, arlo honek erabilerarako duen garrantzia kontuan izanik, argi dago euskarazko ikastaroak ugaritu egin beharko ditugula datozen urteetan.



D


EAEko sektore publikoan euskara normalizatzeko dekretu berria

25 urte baino gehiago joan dira 86/97 Dekretua onartu zenetik hona. Aitortu behar da dekretu benetan **ausarta** idatzi zutela erredaktoreek, garai hartan euskararen osasuna Administrazioan ahula baitzen eta normalizazioaren aldeko apustu garbia egin beharra baitzegoen. Dekretuari esker —Administrazioak egindako ahaleginari esker eta langileek erakutsitako atxikimenduari esker— euskarak ibilbide oparoa egin du gure sektore publikoan urte hauetan guztietan.

Izan ere, dekretua abian jarri zenean, 86/97 Dekretupeko administraziooko langileen %20 bat baino ez zen gai euskaraz era batera edo bestera jarduteko. Iaz egindako azken ebaluazioak, aldiz, oso bestelako datuak eman dizkigu: gaur egun, administrazio berorretako **langileen % 82 inguruk** du gaitasun osoa idatzizko eta ahozko testuak ulertzeko, eta hori guztia... dekretuari eskerrak.

Nolanahi ere, urteen poderioz, dekretuak ahulezia batzuk ere erakutsi dizkigu: alde batetik, EAEko sektore publikoaren **zatirik handiena kanpoan utzi zuen** eta, bestetik, gaur egun hamaika dekretu sektorial eta hamaika hizkuntza-politika ezberdin dauzkagu erkidegoan. Gainera, sistema zurrunegia erabili dugu hizkuntza-eskakizunen esleipenerako; eta agian, hizkuntza gaitasunaren gainetik zertifikazioari eman diogu lehentasuna, batez ere hasierako urteetan, euskararen erabilera bigarren mailan utzita.

86/97 Dekretupeko administraziooko langileen hizkuntza-gaitasuna



Adostasunez landutako dekretua

Legebiltzarraren eskaria heldu zen dekretu zaharra aldatzeko eta, haren ordeaz, gaur egungo gizartearen ezaugarrietara hobeto egokitzen den beste bat lantzeko. Urte hauetan alderdi politikoekin, sindikatuarekin, erakundeekin, legelariarekin, hizkuntza-adituekin... ehunka bilera egin ditugu ekarpenak, zuzenketak eta proposamenak jasotzeko. Inork ez gaitu bakarrik utzi eta den-denek eman digute laguntza oso modu ezberdinean pentsatzen dugun arren. Eskerrak bene-benetan guztioi.

Jakin badakigu, aldaketa guztiekin gertatzen den bezalaxe, dekretu berriak, hasieran behintzat, deserosotasun batzuk sortuko dituela eta sortuko “dizkigula”; badakigu, halaber, testu hau ez dela inorena eta, aldi berean, **guztiona** dela, partaidetza handienaren izenean, denok hasieran genituen asmo batzuk bazter utzi behar izan ditugulako. Hala ere, argi daukagu dekretu berria aurrerapauso handia izango dela, ezagueraren gainetik, euskararen erabilera EAEko sektore publiko osoan sustatzeko, normalizazio prozesu ezberdinak koordinatzeko eta, oroz gainetik, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Giltzarri batzuk

1

EAEko **sektore publiko osoa** sartzen da dekretu berriaren ezarpen eremuan, baita orain arte kanpoan zeudenak ere: Osakidetza, Ertzaintza, Hezkuntza, Justizia eta EAEko sektore publikoko bestelako erakundeak (zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak, fundazio publikoak, partzuergoak...). Batera biltze horrek ahalbidetuko du beharrezko koordinazioa planifikazioan, hizkuntza-eskakizunen sisteman, lanpostuen horniketan, eta euskararen normalizaziorako oinarritzakoak diren beste irizpide guztietan. Gainera, aukera emango die bai administrazio instituzionalari (zuzenbide pribatuko ente publikoak) bai ente instrumentalei (sozietate publikoak, partzuergoak eta fundazioak) aurrerapauso sendoak emateko euskararen normalizazioari begira; azken batean, erakunde horiek ere zerbitzu publikoa eskaintzen digute EAEko herritarroi.

2

Erakunde sartu berriek zazpigarren eta zortzigarren plangintzaldiak baliatu ahal izango dituzte dekretu berrira **egokitze (10 urte)**; eta barruan zeudenek, ordea, urtebeteko epea izango dute horretarako (Jaurларitza, udalak, aldundiak, ...).

3

Hizkuntza planifikazioa luze-zabal jasota dago: planifikazio tresnak, plangintzaldiak eta hizkuntza planifikazioaren partaideak arautzen ditu testuak. Plan estrategiko eta kudeaketa-planez gain, dekretuak erakundeko **Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak** onartu beharra ezartzen du; hau da, dekretu honen aplikazio eremuan dauden entitateek eta horien zerbitzura dauden langileek bete behar dituzten **oinarritzko jarraibideak**.

4

Hiru motatako hizkuntza eskakizunak egongo dira, Europako Markoaren arabera izendatutakoak: simetrikoak, asimetrikoak eta partzialak.

5

Lanpostuen zereginak idatzizko eta ahozko maila ezberdinak eskatzen badituzte, haien arteko **konbinazioak onartuko dira**. Edozelan ere, herritarrekin ohiko ahozko harremana duten lanpostuetan ahozko adierazpenean esleitu beharreko gutxieneko maila B2 maila izango da. Oro har, euskara-mailak bat etorriko dira lanposturako eskatzen den titulazio-mailarekin: unibertsitate-ikasketak (C1), batxilergoa eta Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariak (B2), eta DBH eta Lanbide Heziketako teknikariak (B1).

6


Euskararen ezaguera akreditatzeko beste bide batzuk aurreikusten dira, den-denak erabileran oinarrituta.


7

Lanpostuen horniketa prozesuetan, euskara derrigorrezkoa duten lanpostuetarako erakunde antolatzaileak hautagaiei eskatu ahalko die hautaketa prozesuan aurreikusitako **proba teoriko edo praktikoa bat, gutxienez**, euskaraz egiteko. Bestetik, teknikari gaituek hautaketa prozesuko ariketa guztiak euskaraz egin beharko dituzte ezinbestean.

8

Derrigortasun indizearen kalkulua, euskararen balorazioa hautaketa prozesuetan, eta salbuespen erregimena (45 urte eta abar) **ez dira aldatzen**.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

BIKAIN
EUSKARAREN
KALITATE-ZIURTAGIRIA

itzuli
itzultzaile neuronalak

e//
euskaraz
BARRA // BARRA

AG
ARI GARA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco